

GIG 11

ISTIÑAKO PALEOKARSTA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**
 BALIAGARRITASUN-MAILA: **2**
 KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Istiñako harrobi abandonatuaren goiko aldean, azaleratu egiten da Erlo formazioaren eta Altzola formazioaren arteko higadura-kontaktua. Esan beharra dago Erlo formazioa kareharri mikritikoz osatuta dagoelako, eta Altzola formazioa, berriz, hareharri turbiditiko. Kareharriek, gainaldean, oso higadura-gainazal irregularra dute: horma bertikaletako hutsune handiak daude, eta hutsune horiek goiko formazioan jarraitzen duten hareharri turbiditikoaren geruzek bete dituzte. Betetako hutsunerik handienak 11 metroko zabalera eta 8 metroko sakonera ditu, eta argi eta garbi bereizten da harrobiaren behealdetik.

Dirudenez, higadura-kontaktua hori paleokarst bat da: Erlo formazioa kareharriak, sakonera txikiko itsas plataforma batean eratutakoak, itsas mailaren jaitiera erlatibo baten ondoren agerian gelditu zirenean osatuko zen. Orduan, kareharriek disoluzio-prozesuak jasan zituzten, eta horrenbestez, morfologia irregularra eratu zen: morfologia karstiko tipikoa. Geroago, kausa tektonikoak zirela-eta, kareharriak arto sakoneraino hondoratu ziren, eta han, Altzola formazioa turbiditekin estali zituzten; turbidita horiek, halaber, higadura karstikoak azalean utzitako hutsuneak bete zituzten pixkanaka.

Azaleramendua oso inguru hondatuan eta harrobi baten gainaldean egon arren, aukera paregabea eskaintzen du Geoparkeko Behe Kretazeoko unitate tekto-sedimentarioak zein konplexuak diren ikusteko.

NOLA BERTARATU

Debako hegoaldeko sarrera inguruan, N-634 errepidean, San Martin Ermitatik Istiñako harrobi abandonatura joateko bidea hartu behar da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Harrobiaren behealdea. Lekua gertuagotik ikusteko, harrobiko bertako malkarretan gora egin daiteke pixka bat.



Higadura-gainazala Istiñako harrobiaren goiko aldean dago.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
 X= 551934 m / Y=4792304 m / Alt.= 148 m



Paleokarsteko hutsunerik handienetako baten betekin turbiditikoak, gertutik ikusita.